

Dr. D. Jose Feliz Amundarain Mujika eta Cadiz-ko Konstituzio euskaratuaz zenbait ohar

Esan beharrik ez dago, hizkuntzek aurrera begirako iraupe-
nez, jantziak izateko beharrezko
dutela gaiak orokorki landuz hor-
nitzea eta gureak oraindik juridi-
ko aldetik hutsuneak nabari ditu.
Horregatik nator gaurkoan hona-
ko lan hau oroitaraztera.

1987. urteko apirilaren 24an,
Euskaltzaindiko batzarrean aur-
keztu nuen "Cadizko Konstituzioa
euskaraz 1820" zeritzan txostena
(ikus *Euskera*, XXXII, 1987, 393-
397. orr.).

Aita Zubeldia hondarribiarrak
eman zidan haren berri, Honda-
rribiko Aita Kaputxinoen biblio-
tekan eskuizkribuen artean aurki-
tua (orain Donostian ordena
berek biblioteka nagusian gorde-
tzen dena). Laster ohartu nintzen
Cadizko Konstituzioa zela, za-
balkunderako zein eskoletarako
prestatua; baina egiletzat "Dr. D.
J. F. A. Guipuztarrac" soilik zeka-
rren. Liburuaren izenburuz ordea
Jaquin-bide Iritarautia zeraman.

Txosten hartan nioen bere letra
garbia zuela. Itxura zuenez eus-
karaz idaztera ohitua zela era-
kusten zigun eskuizkribu hark.
Gipuzkeraz idatzia, eta Larramen-
diren hiztegiuz ondo kutsaturik
egonarren Goierrri aldeko hizkera
jatorrean egina. Baina euskal
idazle ezagunen artean ez nuela
aurkitzen sigla horiekin zetorre-
nik. Liburuaren sarrera ordea:
"Dn. Miguel de Zumalacarregui
Goico Conseju Justiciacoaren Mi-
nistroari donquitua..." zenari
eskainia.

Herri literaturaz aberats garen
neurrian, kultura modernoan urri
dugu euskara, legee buruz bati-
pat. Fotokopiak atera eta eman
nituen zenbait erakundetara, aldi
berean liburu hori argitaratzeko
 premia azalduz, bai Euskaltzain-
dian eta baita Euskal Legebiltza-
rrean ere. Ez batak eta ez besteak
ez zuen azaldu hortarako gogorik
eta hori izan zen arrazoia 1991.
urtean Ararteko nengoela faksi-
milean 200 ale soil argitaratzeko,

gure biblioteka nagusietan eta Unibertsitateetako Zuzenbide Faltateetan eta gai hortaz arduratzen diren zenbait euskalarik beren langintzarako edo ikerketarako aukera izan zezaten.

Nik ez nuen izan egilea nor zen ikertzeko betarik. Baina hara hor non arduratu zen arreta handiz Angel Ibisate Lozares Gasteizen Seminarioko bibliotekan arduradunetako dena.

Bibliotekako zuzendaritzak eman zion nonbait A. Ibisate jaunari ikerketaren agindua ete berebiziko onduen bete zuen eginkizun hori. Lehenik, lan hori nondik itzulia zen aztertu zuen, eta ikerketaren ondorioz aditzera eman zuen honako lan hau: "El original castellano del "Jaquin-bide Iritarautia" del Dr. D. J. F. A.", *Scriptorium Victoriense* 39 (1992), 222-227. orrialdeetan argitaratua. Eta hara non 1812an Cordoban argitaratu zen: "*Catecismo político arreglado a la Constitución de la Monarquía Española para ilustración del pueblo, instrucción de la juventud, y uso de las escuelas de primeras letras* por D. J. C. en Córdoba, en la imprenta Real de D. Rafael García Domínguez, año de 1812". Baina, oraingo honetan ere, D. J. C. sigla horren atzean nor zenik ezin lortu.

Hala ere, Ibisate jaunak azterketa horren ondotik jarraitu zuen Iruña eta Donostiako apezpikute-gietan Dr. D. J. F. A. euskal idaz-

lea nor ziteken aztertuz eta, zorionez, baita lortu ere. Ikus: "El Doctor Don José Feliz Amundarain (Cegama 1755 - Mutiloa 1825), autor del *Jaquin-bide Iritarautia* (1820)". Lortu zuenaren berri emanaz *Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte - Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*-ko *Boletín*-ean, Año L, 1994, 159-169. orr. Bertan, agertu zituen idazlearen berriez gainera, bere guraso eta senideen xehetasunak ere. Bestalde, 165. orrialdean idazlearen eskuizkribuaren fotokopia bat agertu zuen eta ez dago zailantzarik 1820ko *Jaquin-bide Iritarautia* liburuko letraren berdina dela.

Lan horri esker, orain badakigu, Jose Feliz Amundarain Mujika Zegaman jaioa zela 1755. urteko azaroaren 19an, apez izatez gainera baina zuzenbidetzan lizentziatua eta doktoradutza ere lortua zuela. Eta 1825. urteko azaroaren 27an hil zela Mutiloan, bertako bikario zelarik.

Jose Feliz Amundarainek bestalde, liburu hori eskaini zion Miguel Zumalakarregiri familiarekiko xehetasunak ere ematen zizkigun.

Ibisate jaunak, bukaerako azken orrietan, lan horrekin zer ikusirik izan dezaken liburuxka baten berri ematen digu, J. Vinsonnek *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* (1891) katalogoan 188 zenbakiz datorren fitxa-

koa hain zuzen, eta oraingoz hor dugu aztergai.

A. Ibisate jaunak, geroztik eskuzko ohar bat luzatu zidan, J.F. Amundarain noren gaztele-razko lanean oinarritu zenaren zehaztasuna adiaraziz. D. J.C. si- glapean aurkitzen zena, Don José Caro omen zen, César Gallastegi elorrioarrak aditzera eman zio- nez. Honek hala aurkitua Capitán Díazen katalogatze lan batean.

Lan hori: *Los Catecismos Políticos en España (1808-1822)* deritzan bilduma da.

Horrez gainera, gero jakin du- danez, Mutiloako elizan J.F. Amundarain zenaren euskarazko zenbait sermoiren eskuizkribuak aurkitu omen dituzte. Berri hau Ormaiztegiko Tomas Zumalaka- rregi museokoegandik jasoak dut. Hara hor ere euskara idatziaren ezagupenerako ikergaia.

J. San Martin